

# Mogel eibartarra eta Lelo'ren kantu-zarra

**IRAKORLE:** ez dakit inoiz entzungo zenduan Lelo kantuarren berri; ba, diñuenet, euskal kanturik zarenetakua da. Bere berri munduan leleno aldiz Guillermo Humboldt'ek emon eban, geruago Justo Garate'k españerara itzuli-ta «Correcciones y Adiciones al Mithridates de Adelung sobre la lengua Cantábrica o Vasca» izenarekin 1933'garrenean Revista Internacional de Estudios Vasco'en argitaratu eban.

Humboldt filologo alemanaren iritziz erromatarren gerratik zetorkigun kantu zu. Bere ustez, Lelo ori, erromatarren aurka ibilli tan gerra- gizon izen aundikoren bat tan, eta euskaldunak bere izenari betikotasuna emotiarren edo, euren kantu gutxietan erabiliko ebela, esaten eban. Baña, geruagoko euskeltzalerik geienet ustez, ez ei dauka Lelo estribillo orrek Humboldt'ek zifuan gerra gizonarekin zer ikusirik; Lelo estribilluaren esatera bat besterik ez ei da. Baña, oso gutxiak dakiena da, kantu ori billau ebana Juan Antonio Mogel eibartar euskal eskribitzaile askarra izan zala.

Mogel, 1745'garrenian gure errian jaiotzen; bere berri 1956'ko EIBAR 4'garrenean, 11'garren orrialdean emon genduan.

Humboldt'ek eta Mogel'ek, alkarrekin artu emon aundiak izan zituen; ba, eibartarrak asko leguntzen ei zetzan alemanari, da bere euskeraren estudiantetarako latine-rik euskerara aldatzen zetzaren zenbait gauza, orduan itxuli eban C. C. Salustio'ren XVIII'garren kapituloko atal bat pe, da ondo gañera aidatu be.

Mogel'ek Markina'n parroko eguala, P. B. Mugartegi zanaren liburutegian eguzen Ibarguen eta Katxupin jaunen papal zarretan billau eban ainbeste berbaki- emon biar eban kantua. Sakon asko azzartu eban Julio de Urkijo'k «La crónica de Ibarguen-Cachopín y el canto de Lelo» (R. I. E. V., 1922-1924). Da batuz be Juan Carlos Guerra'k bere «Cantares antiguos del Euskera» (1924) izena dariojan liburuan, da euron iritziz XV'garren eunki edo siglo erdi ingurukua dala diñue da ez-dabe uste erromatarren denoparirik etorri leikianik. Ara bere bertsoak:

- Lelo il Lelo, Lelo il Lelo,  
Leloa, Zarak il Leloa.  
Erroma'ko armak alegin eta  
Bizkaia'k daroa zantsoa.  
Oktabiano munduko jauna,  
Lekobide Bizkaikoa.  
Itxasotati eta liozrez  
Imiñi deusku moltsoa.  
Leor-zelaiak bereak dira,  
Menditantaiaik leusoa (1).  
Leku ironian (2) gagozanean,  
Nok bera sendo dau gogoia.  
Bildurrik gitxi arma bardiñat,  
—Oramaia, zu gexoa—  
Sataik gogorak ba'dituez,  
Narru billoxa surboa (3).  
Bost urtetako egun-gabean,  
Geldi bagarik potxoa (4).  
Gureko bata il ba'dagian,  
Bost erromarren galdoa.

Aek anitz (5) ta guk gitxi ta ia  
Arken in dugu la-alboa (6).  
Geure lurrean ta aen errian  
Birotx (7) ain baten zamoia (8).

Tiber lekuan geldiko zabal,  
Utxin (9) ta amaio grandoa.  
Andiar istak (10) geizto zindozt.  
Betiko naiar nar doa (11).

Bertso onek ez dira osoak, estrofa batzuek erdi borrauta billau zituen eta ezin izan zituen garbi aitu. Aintzinakuak diranez ba dauke gaurko euskerakin aldia pisikat. Baña, etagun da egillia bizkaitarra zana, ango euskeran dago-ta. *Tratado de las cosas de Vizcaya* eskribidu eban Antonio Bedia, Arratia'ko seme argia, Carlos V'garrenenakin serbidu ebanarena ete dan diño Guerra jaunak, orduango tankera daroiialako, ta gutxi gorabera 1529'garrene-rutz egiña izango dala. Olan izanda be badauka naikua aintzintasun gure Mogel'ek billautako kantu onek. Ba, Ibarguen'ek Simancas ta Bizkaiko artxibuetan egin eban azzar-billaketan, 1590 inguruan, erdi zitak jandako pergamino batian billau ei eban, luziagua ei zan eta amasei estrofa bakarrik kopiau ei zituan. Gañerakuak, geruago, galdu ein biar izan ziran; da, geruago Mugartegi'n liburutegian lo eguan, inork bere berririk etekiala, Mogel'ek billau arte.

Arazkero amaika kantu agertu da Lelo estribillua tartian daroiana. Euren berri emotia aspergarria litzake, baña, batena emongo detsuet, euskaldunentzat benetan jakingarria dalako; Menendez y Pelayo'k billau eban Perutxo'ren kantua da; Fernando de Rojas'en «La Celestina» imitazioño asko izan ditu eta euretako bat Toledo'ko Gaspar Gómez'ek eskribidu eban «Tercera Comedia de Celestina» izan zan. Berak ekarren «El Cantar de Perucho» deitzen jakon partian, 1536'gn. urtian argitaratu zan; eta Najera, Ojacastrero eta beste leku batzuetako dokumentuak alde batera laga ezkerro, dudarik barik, euskerazko testorik zarrena edo zarrenetakua dogu.

Urkijo'ren iritziz, bere «La Tercera Celestina y el Canto de Lelo» (Revista Internacional de Estudios Vascos, 1910), euskal testorik zarrena Tercera Celestina'ko Perutxo'ren kantua ei da. Manuel Lekuonak pe orrela diño (Viejos textos, «El Cantar de Peruchos», R. I. E. V., 1925).

Orren urrengo euskerazko testoa, berri- ritz, 1542'an Rabelais'en Pantagruel liburu- an azaltzen dan «Jona andies» dalakua ei da. Barriobero eta Herrán jaunak diñuenet, Pantagruel'en leleno liburu 1532'en arkenetan edo 1533'ko asieran argitaratu ei zan Lyon'en. («Gargantúa y Pantagruel», traducidas y recompuestas de las ediciones reputadas como más auténticas y escrupulosas, anotadas y comentadas por E. Barriobero y Herrán, Madrid, 1923).

Bi liburuak pe ez dabiz bata bestigandik urrin. Da, gero, orren biongandik laster izan gendun guttiz euskeraz eskri-

bidutako Beñat Etxepare'n *Linguae Vasconum Primitiae*: «Euskera, urten ari plazaratu», esanaz.

Euskeraren jatorria eta istoria estuditzen dabene guztiak, naiiz euskalduna edo naiiz erdeliduna, Lelo'n kantu zarra be azzartu biarrian azaltzen dira, orregaitik euskaltzaleon artian izen aundiko kantua da. Gaurko egunian, Humboldt'ek billau eba- la pentsatzen dabe askok; baña berak Humboldt'ek garbi asko ipintzen dau bere «Correcciones y Adiciones»en Mogel'ek emon zetzala. Gañera, Mogel'ek berak be badau «El Canto de Lelo» izenez erautzen dan artikulua bat erderaz. Ez nago ziur Humboldt'ena baño lenago ala geruago eskribidutakua dan, ba Mogel'en biarrik geienak bera il ondoren argitaratu ziran, fama aundizko «Peru Abarkoa»n moduan. Dana dala, gaurko inbestigadore guztiak, etdakielako edo, Lelo'ren kantu zarra azzartzen dabienian, gure Mogel'ekin azzuta, Humboldt'en izena bakarrik erabiltzen dabe.

Asko dira uste dabienak Ibarguen'ek kopiau eban pergaminoa, aurrerago bes- teren bategandik kopiauta izan ete zan eta bene-benetan erromatarrekin euskal- dunak ein eben gerraren batetik etorri leikiala. Baña geienet ustez inok ez ei dau jakingo bere zutrai jatorria nundik datorren. Dana dala, euskal kanturik zarrenetakiko onek garrantzi edo inportan- zia asko dauka. Eta eibartarrondako pos- garriena gure erriar batek billatza da. Asko azzu ein dirala? Ez da aritzekua. Gure erria be azzuta bizi izan-da bere seme jatorrakin. Durango'k askoz be gu- xiago merzi eban Astarloo goratu eban da guk orañ in urtera arte ez genduan jakin eibartarra zanik pe, da orduan be erbestekuegandik. Ba, Gregorio Mujika'k be ez eben azzartzen bere «Eibar, monog- rafia histórica»n, beste askok moduan Markina'koa zalakotzat edo.

Badakit askok esango dabena: «Eibar' - en alde zer ein jua ba?». Baña zentsun- dun gizonentzat ganora bako pregundia da ori. Ze, gizon batek munduan alde- rako eiten dabienian Eibar'en alderako be eiten dau. Berak zer ei-eban jakitzaia nai dabena ikusi delala gorago izendatzen doen 1956'ko laugarren EIBAR. Mundu guzti-ko erriak goratu dituez bere erriko gizon famadunak edo ongilliak, eura- emoten detzelako erriari nortasunik geien, eta Zuloaga, Loyola, Sarasketa, Anitua, Galdos, eta olakuen artian biar dau Mogel'ek bere lekua, da ori eiten ez-dogun artian zor aundi bat izango dogu berakin.

Juan San Martín.

(1) leza, caverna; (2) favorable; (3) sur ba-douo, ágil; (4) potxoloa, trinche- ra, cerco; (5) asko; (6) la, neke; (7) birotz, bikotz, doble; (8) zamu, bande- ra; (9) utzi, laga, dejar; (10) andiar istak, infatuados; (11) narrat jua, irse arras- trando.

**ALCA, S. A.**

Fábrica de Herramientas  
de Medida de Precisión

Ibargain, 8 - Teléfono 71420 - EIBAR

**Hijos de Artamendi, S. A.**

DAMASQUINADOS  
Embutizajes sobre hierro y metales.  
Accesorios de Automóvil y Moto.  
Huchas de ahorro.

Fuadizoro, 6 EIBAR Teléfono 72 00-72101

**Francisco Arana, S. R. C.**

Fábrica de Tornillos  
y demás piezas de precisión

Carretera de Elgueta, 4  
Teléfono 72516

EIBAR